

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO


SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Tratu txar psikologikoa da Gobernuko kanpainaren ardatza genero-indarkeriaren aurkako Eguna dela eta

*Irailaren 30era arte 836 salaketa zenbatu dira Nafarroan genero-indarkeriagatik, 2013an aldi berean zenbatukoa baino % 11,7 gehiago*

Lunes, 17 de noviembre de 2014

Herritarrak kontziente izatea tratu txar psikologikoa existitzen dela eta hura detektatzen erakutsi behar dela dira "[Indarkeria mota asko dago](#)" izeneko kanpainaren helburuak. Kanpaina hori Nafarroako Gobernuak abian jarri du azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna dela baliatuz.



Astelehen honetan, azaroak 17, hasi den kanpaina abenduaren amaiera arte luzatuko da, eta gaur goizean [aurkeztu](#) du prentsurrekoan Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuko zuzendari-gerente Teresa Nagorek. Nagorek adierazi du indarkeria psikologikoa oharkabean pasatzen dela ia, nahiz eta haren ondorioak oso larriak izan eta frogatzeko zailagoa den.

Arrazoi hori dela-eta, kanpainak herritar guztiak sentsibilizatu nahi ditu, gizonezkoak bereziki, gizarteak normalizat jotako jokabideak detektatzeko orduan, baina tratu txarra adierazten duten jarrerekin bat datozenak. Gainera, zentzumenen bidez indarkeria psikologikoaren esanahia helarazi nahi du, eta baita hura pairatzen duten emakumeek bizitako beldur, kontrol eta jazarpenerako prozesua ere.

Hamar bat ekintza jasotzen ditu, esaterako: Nafarroako hainbat udalerritako kaleetan egindako ekintzak indarkeria psikologikoa identifikatzen ikasteko, kanpaina honetarako berriaz egindako [bideoklip](#) bat zabaltzea, [www.nosolosongolpes.navarra.es](http://www.nosolosongolpes.navarra.es) webgunea sortzea, iragarkiak, eta azaroaren 24an, 18:00etan, [Iruñeko Planetario](#)an egingo den [ospakizun](#) bat.

Kanpainak 17.000 euroko aurrekontua du eta "[Ia Caixa](#)" [Gizarte Ekintza](#)ren eta [Caja Navarra Fundazio](#)aren laguntza du. Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuak (*traola*) [#nosolosongolpes](#) etiketa erabiltzeko proposamena egin du sare sozialetan erabiltzeko.

## **Entzuteko set-a, bideoklipa eta *photocall*-a**

Aipatu den moduan, "Indarkeria mota asko dago" kanpainaren esparruan, Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuak kaleko ekintzak egingo ditu datozen asteotan Nafarroako sei udalerritan, [Nafarroako Unibertsitate Publikoan](#) eta [Nafarroako Unibertsitatean](#).

Jarduera hori entzuteko set bat jartzean datza, eta han gizon nahiz emakumeen arteko eguneroko hainbat egoera birsortuko dituzten [audioak](#) entzungo dira. Kabina horretan daudenek identifikatu beharko dute, begiak estalita eta esku lila bat altxatuz, haietako zein datorren bat emakumearen aurkako indarkeria psikologikoko egoera batekin.

Entzuteko set hori Iruñeko Gaztelu plazan jarrita dago astelehen honetatik, azaroak 17, hilaren 29ra arte, 11:00etatik 14:00ak arte eta 17:00etatik 20:00ak arte. Jarraian, Tafallan jarriko da, abenduaren 1ean, 17:00etatik 20:00etara; abenduaren 2an, Tuteran, 17:00etatik 20:00etara; Lizarran, abenduaren 3an, 11:00etatik 14:00etara; Altsasun, abenduaren 4an, 17:00etatik 20:00etara; Nafarroako Unibertsitate Publikoan, abenduaren 16an; Nafarroako Unibertsitatean, abenduaren 17an; eta Lekarozen (Baztan) abenduaren 18an, 11:00etatik 14:00etara.

Datozen asteotan ere *Lola* abestiaren bideoklipa zabalduko da sare sozialetan, bat-bateko mezularitzaz (Whastapp) eta Nafarroako Gobernuako webgunearen bidez. Lucas Irisarrik kanpaina honetarako berariaz konposatutako pieza da, eta, harekin batera, Aurora Beltranek interpretatu du. Abesti horren [letrak](#) emakumeek jasan dezaketen indarkeria psikologikoko egoerei nahiz herritarren aldetik jaso behar duten laguntza sozialari egin die erreferentzia.

Bestalde, abenduaren 22 eta 23ko asteburuan, Iruñeko diskoteketan panel batzuk jarriko dira kanpainaren irudiarekin, *photocall* modura, arazo honen gainean gazteak kontzientziatzeko asmoz.

## **Ekitaldi nagusia eta beste zenbait ekintza**

Kanpainaren ekitaldi nagusia azaroaren 24an (emakumeen aurkako Nazioarteko Egunaren bezpera) egingo da, 18:00etan, Iruñeko Planetarioan. Herritar guztientzat zabalik izango da eta hura egin bitartean *Lola* abestiaren bideoklipa aurkeztuko da, ordura arte kalean egindako ekintzak laburbiltzen dituen bideo bat proiektatuko da eta entzuteko set-eko audioak erreproduzituko.

Kanpaina honetarako berriazko webgune bat ere sortu da ([www.nosolosongolpes.navarra.es](http://www.nosolosongolpes.navarra.es)), eta bertan egindako materialak nahiz kalean egingo diren ekintzen egutegia jasoko dira bertan.

"Indarkeria mota asko dago" kanpainaren barnean iragarritako beste ekintza batzuk honako hauek dira: *Lola* abestia El Corte Inglés, Itaroa eta La Morea saltoki handietako hari musikalen bidez zabaltzea; 200 horma-irudi jartzea ostalaritza-establezimendu, saltoki, osasun-zentro, gizarte-zerbitzu eta abarretan; iragarkiak irratan eta Interneten; [esku lila](#)ren paparreko orratzak banatzea, hau da, Nafarroako Gobernuak herritar eta talde guztien esku jarritako ikurra indarkeria matxistaren gaitzespena ikusarazteko.

## **Emakumeen aurkako indarkeriaren datuak**

Prentsaurrekoan zehar, Nafarroako Familiarako eta Berdintasunerako Institutuko zuzendari-gerente Teresa Nagorek ere emakumeen aurkako indarkeriari lotutako azken datuak aurkeztu ditu.

Irailaren 30era arte, Nafarroan 836 salaketa aurkeztu dira genero-indarkeriagatik, iazko aldi berean izandakoak baino % 11,7 gehiago. Salaketa gehien abuztuan (104 salaketa), uztailan (101) eta martxoan (100) izan dira.

Aipagarria da emakume espainiarrek (kopurua guztiaren % 63) atzeritarrek (% 37) baino salaketa gehiago jartzen dituztela. Gainera, gizon espainiarrek (% 60) atzerrikoek (% 37) baino salaketa gehiago jasotzen dituzte. Salatutako indarkeria ohikoena fisikoa eta psikologikoa da (% 64) eta indarkeria gehien egungo bikotekidearen aldetik agertzen da (% 49), eta haren atzetik dator bikotekide ohiaren indarkeria (% 34).

Adinari erreparatuz, erasotako emakume gehienak 18-24 urte artekoak dira (% 16) eta gizona

erasotzaileak, 35-39 artekoak (% 17). Iazko datuen aldean, gehien salatzen duten emakumeen adin-tartea jaitxi da (30-34 arteko taldeetik 18-24ra jaitxi da) eta baita salatutako gizonena ere (40-44 urteetik 35-39ra).

### **Erasotutako emakume gazteen profila**

Nafarroako Familia eta Berdintasunerako zuzendari-gerenteak erasotako emakume gazteen profila xehatu du, adingabeak diren edo ez bereiziz. Hala, 14-17 urte arteko emakumeetan, 36 salaketa aurkeztu dira, hau da, kopuru guztiaren % 4,3, eta horrek % 3,6ko igoera dakar iazko datuarekin alderatuz.

Emakume horiek gehien salatutako indarkeria-mota fisikoa eta psikologikoa dira (% 47,29), eta haren atzetik sexu-erasoa dator (% 30,5). Bikotekide ohiak (kasuen % 30,5) edo egungo bikotekideak (% 22,2) egindako indarkeria da gehien bat.

Bestalde, 18-30 urte arteko emakumeek 333 salaketa aurkeztu dituzte, kopuru guztiaren % 40 eta adin-talde horrek iaz aldi berean aurkeztutakoa baino % 31,4 gehiago. Indarkeria fisikoa eta psikologikoa da gehiena (% 67), eta jarraian, sexu-indarkeria (% 10,2). Erasotzaileak egungo bikotekidea (% 47) eta bikotekide ohiak (% 37) dira gehienbat.

### **Biktimentzako baldintzak**

Bere agerraldian, Teresa Nagorek aipatu du urriaren 31 arte 71 emakumek eta 81 adingabekok erabili dutela [larrialdietako zentroa](#); 9 emakumek eta 16 adingabekok [harrera-etxea](#), eta 7 emakumek eta 9 adingabekok Nafarroako Gobernuaren [egoitza-pisuak](#).

Bestalde, Tuterako Genero Indarkeriaren Biktimen Artatze Integraleko Ekipoek iaz baino % 32 artatze gehiago egin dituzte. Zehazki, Tuterako zentroak 208 emakume eta 31 adingabe artatu ditu, eta Lizarrakoak, 93 emakume eta 28 adingabe.

Nafarroako Gobernuak emandako prestazio ekonomikoari dagokienez, emakume batek [gizarte-larrialdietako laguntza](#) eskatu du, eta onartu egin zaio. Beste 20 emakumek [enplegagarritasun-zailtasunengatiko laguntza ekonomikoak](#) eskatu dituzte; 14ri eman zaie, lau artxibatuta daude eta bi izapidetzen ari dira.

Nafarroako Familia eta Berdintasunerako Institutuak, 122 [ziurtagiri eman ditu genero-indarkeriako biktimen babestutako etxebizitza bat izan dezaten](#), eskatutako 136etatik. Hamar ukatu egin dira eta lau emakumek beren eskaeran atzera egin zuten.

Teresa Nagorek ere aipatu ditu, Nafarroako Emakumeen aurkako Indarkeriako epaitegiek urte honetan zehar, irailaren 30era arte, emandako 296 babes-neurriak, 179 epaiak eta 117 babes- aginduak.

Azkenik, segurtasuneko neurri eta dispositiboak dagokienez, Nagorek adierazi du 45 emakumek alta eman dutela [Atenpro](#) telefonoz-zerbitzuan; horri esker, genero-indarkeriako biktimen diren emakumeek berriaz prestatuta dauden langileek artatzeko zentro batekin harremanetan jar daitezke edozein unetan haien beharrei erantzun egokia emateko; 53 emakume [Viogen](#) en ageri dira, genero-indarkeriako kasuen jarraipen integraleko sistemari. Azken horietatik, 48k arrisku ertaina dute, 4k handia eta 1ek oso handia.